


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

2012





AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| LABURDURAK..... | 5 |
| I. SARRERA..... | 7 |
| II IRITZIA..... | 8 |
| II.1 OSAKIDETZA..... | 8 |
| II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia..... | 8 |
| II.1.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia..... | 9 |
| II.2 OSATEK, S.A..... | 9 |
| II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia..... | 9 |
| II.2.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia..... | 9 |
| III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK..... | 10 |
| III.1 Aurrekontuak eta Kontabilitatea..... | 10 |
| III.2 Kontratazioa..... | 10 |
| III.2.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak..... | 10 |
| III.2.2 2012an esleitutako espedienteak..... | 10 |
| III.3 Langileria-gastuak..... | 12 |
| III.4 Osatek, S.A..... | 12 |
| IV. URTEKO KONTUAK..... | 13 |
| IV.1 Osakidetzaren kontuak..... | 13 |
| IV.2 Osatek, S.Aren kontuak..... | 20 |
| ALEGAZIOAK..... | 27 |
| ABREVIATURAS..... | 55 |
| I. INTRODUCCIÓN..... | 57 |
| II. OPINIÓN..... | 58 |
| II.1 OSAKIDETZA..... | 58 |
| II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad..... | 58 |
| II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales..... | 59 |
| II.2 OSATEK, S.A..... | 59 |



| | | |
|--------------------------|--|-----------|
| II.2.1 | Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad | 59 |
| II.2.2 | Opinión sobre las cuentas anuales | 59 |
| III. | CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN | 60 |
| III.1 | Presupuestos y Contabilidad..... | 60 |
| III.2 | Contratación..... | 60 |
| III.2.1 | Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores | 60 |
| III.2.2 | Expedientes adjudicados en 2012 | 60 |
| III.3 | Gastos de personal | 62 |
| III.4 | Osatek, S.A..... | 62 |
| IV. | CUENTAS ANUALES | 63 |
| IV.1 | Cuentas de Osakidetza | 63 |
| IV.2 | Cuentas de Osatek, S.A. | 70 |
| ANEXOS | 77 | |
| A.1 | Naturaleza y normativa aplicable | 77 |
| A.2 | Bases de presentación..... | 78 |
| A.3 | Provisiones para pensiones..... | 78 |
| A.4 | Gastos de personal | 79 |
| A.5 | Contratación e Inversiones | 81 |
| A.6 | Osatek, S.A..... | 84 |
| ALEGACIONES | 87 | |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

| | |
|-----------|---|
| BOE | Estatuko Aldizkari Ofiziala. |
| EAE | Euskal Autonomia Erkidegoa |
| DOUE | Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala |
| SPKL | 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. |
| EASL | 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa. |
| AKBP | Administrazio Baldintza Partikularren Plegua |
| IKT | Informazio eta Teknologietako Teknologiak. |
| SPKLTB | Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina |
| EAETB | Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Testu Bategina |
| TVCP/HKEE | Herri Kontuen Euskal Epaitegia |



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), bera arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraiki, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) urteko kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2012ko ekitaldiari buruzkoa.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Berebat, Osatek, S.A. ere fiskalizatu dugu, Osakidetzak kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa.

Gainera, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek, S.Aren urteko kontuen eta aurrekontu eta legezketasuna betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia euskarritzeko.

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailari atxikia dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu erakunde publikoen bitartez.

Osakidetzak osasun zerbitzuak ematen ditu nortasun juridikorik ez, baina kudeaketarako autonomia duten zerbitzu-erakundearen bitartez. 2012an zehar Erakunde Zentralaz gain, beste 24 zerbitzu erakunde aritu ziren: 9 ospitale, 4 zerbitzu erakunde integratu, oinarritzeko osasun-laguntzako 6 eskualde, 3 osasun mentaleko zentro, Larrialdiak eta Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroa. Osatek, S.A. enpresak zerbitzu erakunde izaera du.

II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Aurrekontuak eta Kontabilitatea

1. Gastu modura erregistraturiko kirurgia ekipo bat inbertsio modua zuzen kontabilizatzeak ezarritako aurrekontu mugarekiko 1,8 milioi euroren gehiegizko inbertsioa egin dela erakusten du, EAETBren 54.2 artikulua urratuz.

Kontratazioa (ikus A.5)

2. Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzte produktu edo ondasun higigarrien erosketak, zeinetan kontratazioaren xedea zatikatu den; horrek publikotasun eta lehia printzipioa urratzen du. Sendagaien kasuan, gertaera hau 53,3 milioi euroan egindako erosketetan azaleratu da, guztira aztertu ditugun 72,1 milioi euroren erosketetatik. Gainerako hornigaietan 91,6 milioi euroan gauzatutako erosketak aztertu dira eta egiaztatu da horien % 82,8an (75,9 milioi euro egin dutenak) produktu homogeneoen erosketak zatikatu egin dela (ikus A.5).

Langileria

3. Erakunde Zentralaren hainbat izapidetan jasotakoari jarraiki, hainbat produktibitate-osagarri ordaindu dira; horiek, ordea, ez ditu aurreikusten Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakiak, abenduaren 31ko 235/2007 Dekretu bidez onetsitakoa, ez eta hori aldarazten duen ekainaren 30eko 106/2008 Dekretuak ere. Honela, bada, 2012ko nominan ondoko kopuru hauek ordaindu dira: Lehen mailako atentzio unitateetan lanera etorri ez diren medikuak ordezkatzeagatik produktibitate-osagarria, 1 milioi eurorena; ospitaleetako medikuentzat larunbat, igande eta jai egunetako goizeko moduluan zerbitzu emateagatik produktibitate-osagarria, 1,2 milioi eurorena; lehen mailako atentzio unitateetan erizaintzako etxez etxeko zainketagatik produktibitate-osagarri aldakorra, 223.648 eurorena. Osagarri hauek 2012ko maiatzetik aurrera ez dira kobratuko, Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren 443/2012 Ebazpenak agintzen duen legez.
4. Osatek, SAn zerbitzu ematen duen Osakidetzako langileriak, nominaren autokontzertazio kontzeptuaren bitartez zerbitzu horiengatik ordainsaria jasotzen du, 2012ko urtean 322.147 euro egin dituen. Jarduera honek ez du inola ere autokontzertazio izaerarik.

Epaitegi honen ustetan, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustea alde batera, Osakidetzak zuzentasunez bete du 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Gizarte Segurantzatik eratorritako langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere; obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea baliatzen du eta gastu modura ekitaldian ordaindutako 6,8 milioi euroak jaso ditu. Oro har onartutako kontabilitateko printzipioen arabera, pentsio osagarriek eragindako obligazioak eta antzekoak azterketa aktuariaren bidez kuantifikatu behar dira eta zorpetze printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek bere pasibo aktuarialak 98,4 milioi euroan kuantifikatu ditu 2012ko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura egin. (Ikus A.3).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespenaren ondorioak alde batera, Osakidetzauren Urteko Kontuek 2012ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta ondarearen eta 2012ko abenduaren 31n finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla zuzena erakusten dute.

II.2 OSATEK, S.A.

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Osatek, SAk zuzentasunez bete du 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Osatek, SAren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2012ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2012ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

- Osakidetzak gaurkotu egin behar ditu ibilgetuko erregistro iraunkorrak txandakako inbentario fisikoen bitartez, narriaduragatiko zuzkidura ez ezik, aktiboen balio-bizitza zehaztea ere bideratuko dutenak.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2012ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 584,3 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 75,7 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 15 egunean gainditu da. Bestetik, 2012ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen saldotik 12,9 milioi euroren zenbatekoak legeak horretarako finkatzen duen legezko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.

III.2 KONTRATAZIOA

Aurreko ekitaldietan esleitutako 16 espedienteren lagina aztertu dugu, aldatu, luzatu edo 2012an egikaritu direnak, 128,4 milioi euroren zenbatekoan, eta 50 kontratazio espediente, 316,1 milioi eurorenak, ekitaldi horretan esleitutakoak. Aztertutako espedienteen zerrenda A.5 atalean xehatua dago.

III.2.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 40,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 obra espedientetan eta zerbitzuetako batean, hasierako egikaritza epea, hurrenez hurren, 24 hilabetetik 55era, 29tik 36ra eta 11tik 20 hilabetetara luzatu da; honenbestez, sektore publikoaren kontratazioan buru egten duen funtsen erabilera eraginkorra ez da bermatu (2, 4 eta 16 zk. espedienteak).

III.2.2 2012-AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Lizitazio iragarkiak hautatutako irizpideak eta horien haztapena ezagutzeko AKPPra birbideratzen du, datu horiek iragarkian bertan emateko berariazko obligazioa urratuz, guztira 10,2 milioi euroan esleitutako hornidurako 5 espedientetan eta zerbitzuetako lein (SPKLren 150.5 art.) (49, 50, 61, 63, 64 eta 65 zk. esp.).

Berebat, guztira 68,5 milioi euroan esleitutako hornidurako 11 espedientetan eta zerbitzuetako 2tan lizitazio iragarkiak aldaerak edo hobekuntzak aurkezteko aukera



ematen du, baina ez du zehazten zein elementu edo baldintzen gainean aurkez daitezkeen horiek (SPKLren 147.2 art.) (17, 18, 19, 26, 30, 42, 50, 52, 53, 57, 61, 64 eta 65 zk. esp.).

- Pleguek akatsak dituzte esleipen irizpideak balioztatu eta haztatzeko metodoak zehazterakoan 4 obra espedientetan, misto batean, hornidurako 3tan eta zerbitzuetako 4tan, guztira 69,8 milioi euroan esleitutakoak (SPKLTBren 150. art.) (24, 32, 36, 39, 42, 49, 59, 60, 62, 63, 65 eta 66 zk. esp.).
- Pleguek esleipen hartzailea bermea eratzetik salbuesten dute horretarako justifikaziorik gabe, hornidurako 5 espedientetan eta zerbitzuetako 1ean, 1,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (SPKLren 95.1 art.) (63, 64 eta 65 zk. esp.).
- Guztira 67,7 milioi euroan esleitutako 3 obra espedientetan, hornidurako 2tan eta zerbitzuetako 4tan (SPKLTBren 160.1 art.) (20, 21, 23, 25, 31, 32, 36, 39 eta 42 zk. esp.).
- BOEn lizitazioaren argitalpenak ez du proposamenak aurkezteko epea errespetatzen obra espediente batean, hornidurako batean eta zerbitzuetako 2tan, 28,7 milioi euroan esleitutakoak (SPKLTBren 159. art.) (23, 24, 31 eta 33 zk. esp.).
- Guztira 71 milioi euroan esleitutako 3 zerbitzu espedientetan prezioak berrikusi dira, horretarako pleguak formula edo adierazle ofizialik zehaztu gabe (SPKLren 90 art.) (42, 54 eta 55 zk. esp.).
- Guztira 61,5 milioi euroan esleitutako obra espediente 1ean, hornidurako 7tan eta zerbitzuetako 4tan (SPKLTBren 161. art.) (18, 21, 22, 23, 27, 38, 39, 41, 43, 45, 47 eta 52 zk. esp.).
- Guztira 70,6 milioi euroan esleitutako 2 zerbitzu espedientetan esleipenaren behin-behineko erabakiaren aurka balizko errekurtsioak jartzeko legeak aurreikusten duen epea amaitu aurretik gauzatu da kontratua (SPKLTBren 156. art.) (55 eta 56 zk. esp.).
- Guztira 154,5 milioi euroan esleitutako obretako 2 espedientetan, hornidurako 10etan eta zerbitzuetako 10etan kontratua gauzatu izanaren publikotasuna epez kanpo egiten da BOEn eta ez da batere egin DOUEn (SPKLTBren 154 art.) (22, 23, 24, 25, 26, 31, 32, 33, 34, 38, 40, 41, 43, 44, 45, 47, 48, 55, 56, 57, 59 eta 60 zk. esp.)

Gainera, 14 zerbitzu erakundeetan guztira 2,4 milioi euroren zenbatekoan kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioen erosketan Osakidetzak zatikatu egin du kontratazioaren xedea 7 zentrok gauzaturako erosketetan, 412.660 eurorenak, eta horrek urratu egiten ditu legez kontratatzeko ezarritako prozedurak. Ez-betetze hauetatik % 73 "Erabilera klinikoa duen makineria" kontuan gertatu da. (Ikus A.5).

Bestetara, Osakidetzak 2012an 56,2 milioi euroren gastua erregistratu du protesi eta kirurgia inplanteen kontzeptupean; horietatik 24,4 milioi euro traumatologiako protesiei dagozkie eta zerbitzu erakunde bakoitzak kontratatzen ditu; horren ondorioz, hornitzaile, prezio eta artikulu ezberdinak baliatzen dira. Gomendagarria litzateke, ahal den neurrian, produktu hauen erosketa modu zentralizatuan izapidetzea, eraginkorragoak izatearren bai ikuspuntu ekonomikotik, bai kudeaketarenetik, jada botika eta bestelako farmazia produktuekin eta osasun materialaren atal batekin egin ohi den moduan. Horrela, bada, 2014an Osakidetzako Administrazio Kontseiluak aldakako protesiak hornigaien erosketa integratuko programan jaso ditu.



III.3 LANGILERIA GASTUAK

Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 735 langile finko eta bitartekoen ordainsarien gainean egindako txostenetan, 12 erakunderi guztira dagozkien 15.227 langiletatik, honako huts hauek azaleratu dira:

- 165 izendapenetan ez dago erabilitako prozeduraren dokumentuzko oinarririk.
- Bitarteko edo luzapenezko 35 izendapenetan egin beharreko zerbitzuen eta horien izaeraren identifikazioa falta da eta ez da justifikatzen LOSEren 26.5 artikuluan aurreikusitakoei dagozkienik; honenbestez, ez da horien objektibotasuna bermatzen.
- 5 espedientetan behin-behineko izendapenatarako ezarritako 6 hilabeteko epemuga gainditu da; 3 espedientetan, aldi baterako barne sustapenen urtebeteko epea; 22 espedientetan, zerbitzu eginkizunetarako ezarritako 2 urtekoa eta 55 espedientetan maila jasoagoko egitekoetarako urtebeteko epea .
- 15 kasutan nominako lanpostu funtzionala eta izendapenezkoa ez datoz bat, edo ez dira baliokideak.
- Aldi baterako osagarriei dagozkien erregelamendu berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, autokontzertazioa eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuen egiaztatzea egiten ez delako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen.

III.4 OSATEK, SA

- Pleguek akatsak erakusten dituzte esleipen irizpideak baloratu eta haztatzeko metodoak zehaztean, guztira 13,4 milioi euroan esleitutako hornidura espediente batean eta zerbitzuetako beste batean (APKLTBren 150. Artikulua).
- Osatekek aztertu egin behar lituzte aldi baterako lan kontratuak, plantillaren egiturazko beharrianak zehaztu ahal izateko. Indarrean dagoen araudiak horretarako bide ematen duenean, deitu egin beharko dira horiek betetzeko hautaketa prozesuak. (Ikus A.6).
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2012ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 6,3 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 44,8 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 16 egunean gainditu da. Bestetik, 2012ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen 230.517 euroren zenbatekoak, legeak horretarako finkatzen duen legezko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.

**IV. URTEKO KONTUAK****IV.1 OSAKIDETZAREN KONTUAK-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA**

| BALANTZEA 2012-KO ABENDUAREN 31-N | | Euroak milakotan | |
|--|---------|------------------|------------------|
| AKTIBOA | | 2012 | 2011 |
| AKTIBO EZ ARRUNTA | | 993.740 | 979.099 |
| Ibilgetu ukiezina..... | | 19.854 | 20.789 |
| Aplikazio informatikoak..... | 19.854 | | 20.789 |
| Ibilgetu materiala..... | | 968.438 | 952.514 |
| Lur-sailak eta eraikuntzak..... | 725.121 | | 637.191 |
| Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala..... | 168.088 | | 187.289 |
| Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak..... | 75.229 | | 128.034 |
| Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak..... | | 4.352 | 4.352 |
| Ondare baliabideak..... | 4.352 | | 4.352 |
| Finantza inbertsioak e/luz..... | | 1.096 | 1.444 |
| Hirugarrenei kredituak..... | 1.095 | | 1.383 |
| Bestelako aktibo finantzarioak..... | 1 | | 61 |
| AKTIBO ARRUNTA | | 349.025 | 364.705 |
| Izakinak..... | | 37.536 | 37.020 |
| Botikako produktuak..... | 14.598 | | 14.362 |
| Kontsumoko osasun materiala..... | 19.301 | | 19.274 |
| Bestelako hornidurak..... | 3.637 | | 3.384 |
| Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste knt. b. | 223.877 | | 223.174 |
| Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak..... | 2.446 | | 3.160 |
| Taldeko enpresak eta elkartuak..... | 211.044 | | 216.450 |
| Askotariko zordunak..... | 984 | | 1.747 |
| Langileria..... | 9.403 | | 1.817 |
| Finantza inbertsioak e/lab..... | | 321 | 678 |
| Bestelako aktibo finantzarioak..... | 321 | | 678 |
| e/lab. aldizkakotzeak..... | | 1.125 | 1.233 |
| Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak..... | | 86.166 | 102.600 |
| Diruzaintza..... | 3.757 | | 102.600 |
| Best. aktibo likido baliokide batzuk..... | 82.409 | | - |
| AKTIBOA GUZTIRA | | 1.342.765 | 1.343.804 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2012-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

| | 2012 | 2011 |
|--|------------------|------------------|
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | 2012 | 2011 |
| ONDARE GARBIA | 1.030.308 | 1.003.791 |
| Berezko funtsak | 44.616 | 32.380 |
| Funts soziala | 18.110 | 17.226 |
| Aurreko ekitaldietako ondorioak | 15.154 | 15.191 |
| Ekitaldiaren emaitza | 11.352 | (37) |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak | 985.692 | 971.411 |
| PASIBO EZ ARRUNTA | 13.421 | 12.206 |
| E/luz. zuzkidurak | 2.160 | 3.181 |
| Bestelako hornidurak | 2.160 | 3.181 |
| E/luzeko zorrak | 11.261 | 9.025 |
| Bestel. finantza pasibo batzuk | 11.261 | 9.025 |
| PASIBO ARRUNTA | 299.036 | 327.807 |
| E/laburreko zorrak | 32.344 | 41.030 |
| Bestel. finantza pasibo batzuk | 32.344 | 41.030 |
| Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk | 266.455 | 286.545 |
| Hornitzaileak | 114.090 | 146.122 |
| Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak | 3.700 | 6.440 |
| Askotariko hartzekodunak | 3.228 | 3.637 |
| Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak) | 29.482 | 7.014 |
| Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin | 115.955 | 123.332 |
| e/lab. aldizkakotzeak | 237 | 232 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA | 1.342.765 | 1.343.804 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2012-KO ABENDUAREN 31-N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

| | 2012 | 2011 |
|---|---------------|----------------|
| ERAGIKETA JARRAITUAK | | |
| Negozio zifratik zenbateko garbia | 2.417.595 | 2.446.810 |
| Hornidurak | (582.459) | (557.505) |
| Botika produktuen kontsumoa..... | (216.067) | (196.044) |
| Osasun materialaren kontsumoa..... | (213.342) | (212.254) |
| Beste hornikuntza batzuen kontsumoa | (35.384) | (32.205) |
| Kanpoko beste gastu batzuk..... | (117.605) | (116.652) |
| Lehengaien eta bestelako horniduren narriadura | (61) | (350) |
| Bestelako ustiaketa sarrerak | 28.466 | 29.863 |
| Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk | 26.971 | 28.794 |
| Diru-laguntzak..... | 1.495 | 1.069 |
| Langileria-gastuak..... | (1.680.499) | (1.757.114) |
| Soldatak, lansariak eta antzekoak | (1.343.846) | (1.396.314) |
| Gizarte zamak | (336.653) | (360.800) |
| Bestelako ustiaketa gastuak | (171.782) | (164.772) |
| Kanpoko zerbitzuak..... | (163.805) | (157.555) |
| Tributuak..... | (422) | (392) |
| Merkat. eragiket.gatik galerak, narriad. eta hornig. bariaz. | (3.294) | (2.125) |
| Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk..... | (4.261) | (4.700) |
| Ibilgetuaren amortizazioa..... | (61.264) | (58.949) |
| Ibilgetu ez finantzarioaren diru-lag. egozketa eta beste..... | 61.421 | 58.947 |
| Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza..... | (531) | (368) |
| Narriadura eta galerak | (623) | (435) |
| Besterenganatzeagatiko emaitzak eta bste..... | 92 | 67 |
| USTIAKETAREN EMAITZA | 10.947 | (3.088) |
| Sarrera finantzarioak..... | 555 | 3.184 |
| Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena | | |
| Hirugarrenena | 555 | 3.184 |
| Finantza gastuak..... | (149) | (132) |
| Hirugarrenetikozorreatatik | (149) | (132) |
| Trukaneurri aldeak..... | (1) | (1) |
| EMAITZA FINANTZARIOA | 405 | 3.051 |
| EMAITZA ZERGA AURRETIK | 11.352 | (37) |
| ERAG. JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA | 11.352 | (37) |
| EKITALDIAREN EMAITZA | 11.352 | (37) |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| 2012-KO ABENDUAREN 31-N AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA | | Euroak milakotan | |
|---|-----------------|------------------|--|
| | 2012 | 2011 | |
| GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA | 11.352 | (37) | |
| ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK | | | |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..... | 75.702 | 101.998 | |
| ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA | 75.702 | 101.998 | |
| GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA | | | |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..... | (61.421) | (58.947) | |
| GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA | (61.421) | (58.947) | |
| AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA | 25.633 | 43.014 | |

| ONDARE GARBIAZUZENEAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2012-KO ABENDUAREN 31-N | | Euroak milakotan | | | | |
|---|------------------|---------------------------------|--|----------------|------------------|---------|
| | FUNTS SOZIALA | AURREKO EKITALD. EMAITZAK | JASOTAKO DIRU-LAG. EKITALD. DOHAINT. ETA EMAIT. LEGATUAK | | | GUZTIRA |
| 2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 17.070 | 7.653 | 7.538 | 928.360 | 960.621 | |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (37) | 43.051 | 43.014 | |
| Bazkideekiko eragiketak | | | | | | |
| Funts sozialera ekarpena..... | 156 | - | - | - | 156 | |
| Ondare garbiaren bestel. aldaketak..... | - | 7.538 | (7.538) | - | - | |
| 2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 17.226 | 15.191 | (37) | 971.411 | 1.003.791 | |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | 11.352 | 14.281 | 25.633 | |
| Bazkideekiko eragiketak | | | | | | |
| Funts sozialera ekarpena..... | 884 | - | - | - | 884 | |
| Ondare garbiaren bestel. aldaketak..... | - | (37) | 37 | - | - | |
| 2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 18.110 | 15.154 | 11.352 | 985.692 | 1.030.308 | |



ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA 2012-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

| | 2012 | 2011 |
|--|-----------------|------------------|
| USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | | |
| Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik..... | 11.352 | (37) |
| Emaitzaren doiketak | (380) | (8.101) |
| Ibilgetuaren amortizazioa..... | 61.264 | 58.949 |
| Zuzkiduren aldaketa | (348) | (5.419) |
| Diru-laguntzen egozketa..... | (61.421) | (58.947) |
| Baja eta besterenganatzeengatik..... | 531 | 368 |
| Sarrera finantzarioak..... | (555) | (3.184) |
| Finantza gastuak..... | 149 | 132 |
| Kapital arruntean aldaketak | (22.141) | (125.095) |
| Izakinak | (516) | 499 |
| Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk | (975) | (97.951) |
| Beste aktibo arrunt batzuk..... | 109 | 60 |
| Hartzekod. eta ordaintz. bst. knt. batzuk | (20.090) | (26.083) |
| Beste pasibo arrunt batzuk | 4 | (403) |
| Beste pasibo arrunt batzuk | (673) | (1.217) |
| Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk | 525 | 3.200 |
| Interesen ordainketak | (30) | (13) |
| Interesen kobrantzak | 555 | 3.213 |
| USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | (10.644) | (130.033) |
| INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | | |
| Inbertsioek erag. ordainketak..... | (85.678) | (112.753) |
| Ibilgetu material eta ukiezina | (84.143) | (110.790) |
| Bestelako aktibo finantzarioak | (1.535) | (1.963) |
| Inbertsio ezagatik kobrantzak | 2.604 | 2.589 |
| Ibilgetu material eta ukiezina | 92 | 67 |
| Bestelako aktibo finantzarioak | 2.512 | 2.522 |
| INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | (83.074) | (110.164) |
| FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | | |
| Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak..... | 74.784 | 56.293 |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak | 74.784 | 56.293 |
| Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak..... | 2.500 | 6.000 |
| Beste zor batzuen jaulkipena | 2.500 | 6.000 |
| FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | 77.284 | 62.293 |
| ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN (MURRIZKETA)/ IGOERA GARBIA | (16.434) | (177.904) |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran..... | 102.600 | 280.504 |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran | 86.166 | 102.600 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA (*)

Euroak milakotan

| INBERTSIOAK/FINANTZAKETA | AURREKONTUA | | | | ALDEA | % |
|--|---------------|--------------|---------------|---------------|--------------|-------------|
| | HASIER. | ALDAT. | EGUNG. | GAUZAT. | | |
| Inbertsioek erag. ordainketak..... | 74.658 | 6.065 | 80.723 | 85.678 | 4.955 | 6,1% |
| Ibilgetu ukiezina eta materiala | 72.849 | 4.257 | 77.106 | 84.143 | 7.037 | 9,1% |
| Bestelako aktibo finantzarioak | 1.809 | 1.808 | 3.617 | 1.535 | (2.082) | (57,6%) |
| INBERTSIOAK GUZTIRA | 74.658 | 6.065 | 80.723 | 85.678 | 4.955 | 6,1% |
| Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxuak | - | - | - | (10.644) | (10.644) | >100% |
| Ondareko baliabideengatik kobrantzak | 72.849 | 4.257 | 77.106 | 74.784 | (2.322) | (3,0%) |
| Ondare baliabideen jaulkipena..... | - | 884 | 884 | - | (884) | >100% |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak | 72.849 | 3.373 | 76.222 | 74.784 | (1.438) | (1,9%) |
| Finantza pasiboko baliabideeng. kobrantzak | - | - | - | 2.500 | 2.500 | >100% |
| Taldeko enpresa eta asoziatuekiko zorrak | - | - | - | 2.500 | 2.500 | >100% |
| Inbertsio ezagatik kobrantzak | 1.809 | 1.808 | 3.617 | 2.604 | (1.013) | (28,0%) |
| Ibilgetu materiala..... | - | - | - | 92 | 92 | >100% |
| Bestelako aktibo finantzarioak | 1.809 | 1.808 | 3.617 | 2.512 | (1.105) | (30,5%) |
| Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia | - | - | - | 16.434 | 16.434 | >100% |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | 74.658 | 6.065 | 80.723 | 85.678 | 4.955 | 6,1% |

(*) Honekin baterako kapital aurrekontuaren aurkezpenak Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 1/2013 Zirkularraren II. Eranskinean ezarritako eredu baliatu du. Bestalde, aurrekontuaren egikaritze Erakundearen 2012ko abenduaren 31ko Urteko Kontuen arabera eskuratu da eta zehatzago, Eskudiruzko Fluxuen Egoeratik, Kontabilitate Plan Orokorren arabera formulatu dena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

| GASTUAK / SARRERAK | AURREKONTUA | | | GAUZAT. | ALDEA | % |
|--|------------------|----------|------------------|------------------|--------------|-------------|
| | HASIER. | ALDAT. | EGUNG. | | | |
| Hornidurak | 553.931 | - | 553.931 | 582.459 | 28.528 | 5,2% |
| Salgaien kontsumoa | 196.156 | - | 196.156 | 216.067 | 19.911 | 10,2% |
| Lehengaien eta best. mat. kontsumigarrien konts. | 237.956 | - | 237.956 | 248.726 | 10.770 | 4,5% |
| Beste enpresa batzuek egindako lanak..... | 119.819 | - | 119.819 | 117.605 | (2.214) | (1,9%) |
| Lehengaien eta bestelako hornigaien narriadura..... | - | - | - | 61 | 61 | >100% |
| Langileria-gastuak | 1.732.892 | - | 1.732.892 | 1.680.499 | (52.393) | (3,0%) |
| Soldatak, lansariak eta antzekoak | 1.379.393 | 823 | 1.380.216 | 1.343.846 | (36.370) | (2,6%) |
| Gizarte zamak | 353.499 | (823) | 352.676 | 336.653 | (16.023) | (4,5%) |
| Bestelako ustiaketa gastuak | 148.907 | - | 148.907 | 167.521 | 18.614 | 12,5% |
| Kanpoko zerbitzuak..... | 148.501 | 55 | 148.556 | 163.805 | 15.249 | 10,3% |
| Tributuak..... | 406 | (55) | 351 | 422 | 71 | 20,2% |
| Erag.komertz.gatiko galerak, narriad.& hornid.bariaz... | - | - | - | 3.294 | 3.294 | >100% |
| Ibilgetuaren amortizazioa eta narriadura | 65.055 | - | 65.055 | 61.795 | (3.260) | (5,0%) |
| Erak.eman beharreko diru-lag. eta egin beharr. transf. | 4.817 | - | 4.817 | 4.261 | (556) | (11,5%) |
| Finantza gastuak..... | 63 | - | 63 | 150 | 87 | >100% |
| Hirugarrenetikiko zorreatatik | 63 | - | 63 | 150 | 87 | >100% |
| Ekitaldiaren mozkina..... | - | - | - | 11.352 | 11.352 | >100% |
| GASTUAK GUZTIRA | 2.505.665 | - | 2.505.665 | 2.508.037 | 2.372 | 0,1% |
| Negozio zifratik zenbateko garbia | 2.406.958 | - | 2.406.958 | 2.417.595 | 10.637 | 0,4% |
| Zerbitzu ematea..... | 2.406.958 | - | 2.406.958 | 2.417.595 | 10.637 | 0,4% |
| Bestelako ustiaketa sarrerak | 32.739 | - | 32.739 | 28.466 | (4.273) | (13,1%) |
| Sarrera osagarriak eta kudeak. arrunteko bst batz... | 30.560 | - | 30.560 | 26.971 | (3.589) | (11,7%) |
| Ekitaldiaren emaitzara txertat. ustiaketako diru-lag. | 2.179 | - | 2.179 | 1.495 | (684) | (31,4%) |
| Ibilgetu ez finantzarioaren diru-lag. egozketa eta beste ... | 65.055 | - | 65.055 | 61.421 | (3.634) | (5,6%) |
| Sarrera finantzarioak..... | 913 | - | 913 | 555 | (358) | (39,2%) |
| Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena. | 913 | - | 913 | 555 | (358) | (39,2%) |
| SARRERAK GUZTIRA | 2.505.665 | - | 2.505.665 | 2.508.037 | 2.372 | 0,1% |

ETORKIZUNEN KONPROMISOEN EGIKARITZA 2012-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

| | GUZTIRA | 2013 | 2014 | 2015 |
|---------------------------|---------------|---------------|----------|-------|
| EGUNGO AURREKONTUA | 59.445 | 59.445 | - | - |
| Gauzatua..... | 43.210 | 29.702 | 12.647 | 861 |
| Aldea..... | 16.235 | 29.743 | (12.647) | (861) |



IV.2 OSATEK, SA-REN KONTUAK

| EGOERAREN BALANTZEA 2012-KO ABENDUAREN 31-N | | Euroak milakotan | |
|--|---------------|------------------|--|
| AKTIBOA | 2012 | 2011 | |
| AKTIBO EZ ARRUNTA | 5.751 | 6.414 | |
| Ibilgetu ukiezina..... | 46 | 79 | |
| Aplikazio informatikoak..... | 46 | 79 | |
| Ibilgetu materiala..... | 5.697 | 6.314 | |
| Eraikuntzak..... | 859 | 878 | |
| Instalak. teknikoak, makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. materiala ... | 4.838 | 5.436 | |
| Finantza inbertsioak epe luzera..... | 8 | 21 | |
| Hirugarrenei kredituak..... | 8 | 21 | |
| AKTIBO ARRUNTA | 10.464 | 12.287 | |
| Izakinak..... | 187 | 65 | |
| Lehengaiak eta bestelako hornidurak..... | 112 | 63 | |
| Hornitzaileei aurrerakinak..... | 75 | 2 | |
| Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste knt. b. | 4.088 | 4.145 | |
| Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak..... | 12 | 17 | |
| Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak..... | 4.039 | 4.076 | |
| Langileria..... | 18 | 21 | |
| Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk..... | 19 | 31 | |
| Aldizkakotzeak epe laburrera..... | 1 | 2 | |
| Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak..... | 6.188 | 8.075 | |
| Diruzaintza..... | 6.188 | 8.075 | |
| AKTIBOA GUZTIRA | 16.215 | 18.701 | |
| Euroak milakotan | | | |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | 2012 | 2011 | |
| ONDARE GARBIA | 10.113 | 11.946 | |
| Berezko funtsak..... | 9.306 | 11.083 | |
| Kapitala..... | 3.123 | 3.123 | |
| Eskrituran jasotako kapitala..... | 3.123 | 3.123 | |
| Erretserbak..... | 7.960 | 10.180 | |
| Legezko eta estatutarioak..... | 672 | 672 | |
| Beste erretserba batzuk..... | 7.288 | 9.508 | |
| Ekitaldiaren emaitza..... | (1.777) | (2.220) | |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..... | 807 | 863 | |
| PASIBO EZ ARRUNTA | 314 | 336 | |
| Geroratutako zerga kontzeptuko pasiboak..... | 314 | 336 | |
| PASIBO ARRUNTA | 5.788 | 6.419 | |
| Zorra e/lab. | 1.981 | 2.506 | |
| Bestel. finantza pasibo batzuk..... | 1.981 | 2.506 | |
| Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk..... | 3.807 | 3.913 | |
| Hornitzaileak..... | 154 | 1 | |
| Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak..... | 574 | 774 | |
| Askotariko hartzekodunak..... | 2.204 | 2.179 | |
| Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak)..... | 399 | 405 | |
| Zerga arruntak erag. pasiboak..... | 10 | 10 | |
| Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin..... | 466 | 544 | |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA | 16.215 | 18.701 | |



2012-KO ABENDUAREN 31-N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

| | 2012 | 2011 |
|--|----------------|----------------|
| ERAGIKETA JARRAITUAK | | |
| Negoio zifratik zenbateko garbia | 22.700 | 18.095 |
| Zerbitzu ematea..... | 22.700 | 18.095 |
| Hornidurak | (763) | (1.031) |
| Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa | (763) | (1.031) |
| Bestelako ustiaketa sarrerak | 63 | 9 |
| Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak | 63 | 9 |
| Langileria-gastuak | (10.109) | (10.323) |
| Soldatak, lansariak eta antzekoak | (8.419) | (8.558) |
| Gizarte zamak | (1.690) | (1.765) |
| Bestelako ustiaketa gastuak | (14.343) | (11.701) |
| Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko best. gtu. | (14.322) | (11.688) |
| Tributuak..... | (21) | (13) |
| Ibilgetuaren amortizazioa..... | (1.762) | (1.864) |
| Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste | 2.393 | 4.329 |
| Beste emaitza batzuk | 18 | 145 |
| USTIAKETAREN EMAITZA | (1.803) | (2.341) |
| Sarrera finantzarioak..... | 34 | 123 |
| Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena..... | 34 | 123 |
| Hirugarrenena | 34 | 123 |
| Finantza gastuak..... | (8) | (2) |
| Hirugarrenetikiko zorreatatik | (8) | (2) |
| EMAITZA FINANTZARIOA | 26 | 121 |
| EMAITZA ZERGA AURRETIK | (1.777) | (2.220) |
| Mozkinen gaineko zerga..... | - | - |
| ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA | (1.777) | (2.220) |
| ETENDAKO ERAGIKETAK | - | - |
| Etendako eragiketetatik eratorritako ekitaldiaren emaitzak, zergarik gabe... | - | - |
| EKITALDIAREN EMAITZA | (1.777) | (2.220) |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2012-KO ABENDUAREN 31-N | | Euroak milakotan | |
|--|----------------|------------------|--|
| | 2012 | 2011 | |
| GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA | (1.777) | (2.220) | |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..... | 2.315 | - | |
| Zerga ondorioa | (648) | - | |
| ONDARE GARBIA ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA | 1.667 | - | |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..... | (2.393) | (4.329) | |
| Zerga ondorioa | 670 | 1.212 | |
| GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA | (1.723) | (3.117) | |
| AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA | (1.833) | (5.337) | |

| ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2012-KO ABENDUAREN 31-N | | Euroak milakotan | | | | |
|---|----------------------------|-----------------------------------|------------------------------------|----------------|--------------|---------------|
| | ESKRIT. JASOT. KAPITALA | AURREKO ERRETSERB. EKITALD. | DIRU-LAG. DOHAINZ. ETA BESTE | GUZT. | | |
| 2010-EKO URTE AMAIERAKO SALDOA | 3.123 | 9.386 | - | 794 | 4.629 | 17.932 |
| Irizpide aldatuak doikuntzak, 2010 | - | - | - | - | - | - |
| Errorengatik doikuntzak, 2010 | - | - | - | - | (649) | (649) |
| DOITUTAKO SALDOA, 2011-KO URTE HASIERA | 3.123 | 9.386 | - | 794 | 3.980 | 17.283 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | - | (2.220) | (3.117) | (5.337) |
| Bazkide edo jabeekiko eragiketak | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiaren bestel. aldatuak..... | - | 794 | - | (794) | - | - |
| 2011-KO URTE AMAIERAKO SALDOA | 3.123 | 10.180 | - | (2.220) | 863 | 11.946 |
| SALDOA, 2012-KO URTE HASIERA | 3.123 | 10.180 | - | (2.220) | 863 | 11.946 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | - | (1.777) | (56) | (1.833) |
| Bazkide edo jabeekiko eragiketak | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiaren bestel. aldatuak..... | - | (2.220) | - | 2.220 | - | - |
| 2012-KO URTE AMAIERAKO SALDOA | 3.123 | 7.960 | - | (1.777) | 807 | 10.113 |



ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA 2012-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

| | 2012 | 2011 |
|---|----------------|----------------|
| USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | 1.998 | 3.088 |
| Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik..... | (1.777) | (2.220) |
| Emaitzaren doiketak | 4.442 | 2.996 |
| Ibilgetuaren amortizazioa..... | 1.762 | 1.864 |
| Diru-laguntzen egozketa..... | (2.393) | (4.329) |
| Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak | 5.099 | 5.582 |
| Sarrera finantzarioak..... | (34) | (123) |
| Finantza gastuak..... | 8 | 2 |
| Kapital arruntean aldaketak | (709) | 2.184 |
| Izakinak | (123) | 13 |
| Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk | 41 | (940) |
| Beste aktibo arrunt batzuk..... | 1 | 1 |
| Hartzekod. eta ordaintz. bst. knt. batzuk | (107) | 1.871 |
| Beste pasibo arrunt batzuk | (533) | 1.239 |
| Beste aktibo eta pasibo ez arruntak | 12 | - |
| Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk | 42 | 128 |
| Interesen ordainketak | (8) | (2) |
| Interesen kobrantzak | 34 | 123 |
| Kobrantzak (Ordainketak) mozkinen gaineko zerga kontzeptuan | 16 | 7 |
| Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxuak | 1.998 | 3.088 |
| INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | (6.210) | (5.943) |
| Inbertsioek erag. ordainketak..... | (6.210) | (5.944) |
| Ibilgetu ukiezina | (5.099) | (5.595) |
| Ibilgetu materiala..... | (1.111) | (349) |
| Inbertsio ezagatik kobrantzak | - | 1 |
| Bestelako aktibo finantzarioak | - | 1 |
| Inbertsio-jardueren eskudiruzko fluxuak | (6.210) | (5.943) |
| FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | 2.325 | (9) |
| Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak..... | 2.315 | - |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak | 2.315 | - |
| Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak..... | 10 | (9) |
| Beste zor batzuen jaulkipena | 10 | - |
| Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa | - | (9) |
| Finantzaketa jardueren eskudiruzko fluxuak | 2.325 | (9) |
| ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA | (1.887) | (2.864) |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran..... | 8.075 | 10.939 |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran | 6.188 | 8.075 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| KAPITALAREN AURREKONTUA | | | | | | | Euroak milakotan |
|--------------------------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|------------|------------------|
| INBERTSIOAK | AURREKONTUA | | | GAUZAT. | ALDEA | % | |
| | HASIER. | LDAT. | EGUNG. | | | | |
| INBERTSIOEK ERAG. ORDAINKETAK | 6.347 | 2.817 | 9.164 | 6.210 | 2.954 | 68% | |
| Ibilgetu ukiezina..... | 2.222 | 2.817 | 5.039 | 5.099 | (60) | 101% | |
| Ibilgetu materiala..... | 4.125 | - | 4.125 | 1.111 | 3.014 | 27% | |
| INBERTSIOAK GUZTIRA | 6.347 | 2.817 | 9.164 | 6.210 | 2.954 | 68% | |

| FINANTZAKETA | | | | | | | Euroak milakotan |
|--|--------------|--------------|--------------|--------------|----------------|------------|------------------|
| FINANTZAKETA | AURREKONTUA | | | GAUZAT. | ALDEA | % | |
| | HASIER. | LDAT. | EGUNG. | | | | |
| USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | - | - | - | 1.998 | (1.998) | *** | |
| ONDAREKO BALIABIDEENGATIK KOBRANTZAK | 2.437 | - | 2.437 | 2.315 | 122 | 95% | |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..... | 2.437 | - | 2.437 | 2.315 | 122 | 95% | |
| FINANTZA PASIBOAK JAULKITZEAGATIKO KOBRANTZAK | - | - | - | 10 | (10) | *** | |
| Beste zor batzuk | - | - | - | 10 | (10) | *** | |
| ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN MURRIZKETA GARBIA | 3.910 | 2.817 | 6.727 | 1.887 | 4.840 | 28% | |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | 6.347 | 2.817 | 9.164 | 6.210 | 2.954 | 68% | |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

| GASTUAK | AURREKONTUA | | | GAUZAT. | ALDEA | % |
|---|---------------|-------|---------------|---------------|-----------------|-------------|
| | HASIER. | LDAT. | EGUNG. | | | |
| HORNIDURAK | 5.443 | - | 5.443 | 763 | 4.680 | 14% |
| Lehengaien eta best. mat. kontsumigarrien kontsumoa ... | 865 | - | 865 | 763 | 102 | 88% |
| Beste enpresa batzuek egindako lanak..... | 4.578 | - | 4.578 | - | 4.578 | - |
| LANGILERIA GASTUAK | 10.341 | - | 10.341 | 10.109 | 232 | 98% |
| Soldatak, lansariak eta antzekoak..... | 8.677 | - | 8.677 | 8.419 | 258 | 97% |
| Gizarte zamak..... | 1.664 | - | 1.664 | 1.690 | (26) | 102% |
| BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK | 3.970 | - | 3.970 | 14.343 | (10.373) | 361% |
| Kanpoko zerbitzuak..... | 3.963 | - | 3.963 | 14.322 | (10.359) | 361% |
| Tributuak..... | 7 | - | 7 | 21 | (14) | 300% |
| IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA | 5.479 | - | 5.479 | 1.762 | 3.717 | 32% |
| FINANTZA GASTUAK | - | - | - | 8 | (8) | *** |
| Hirugarrenetikiko zorreatatik..... | - | - | - | 8 | (8) | *** |
| EKITALDIAREN MOZKINA | - | - | - | - | - | *** |
| GASTUAK GUZTIRA | 25.233 | - | 25.233 | 26.985 | (1.752) | 107% |

Euroak milakotan

| SARRERAK | AURREKONTUA | | | GAUZAT. | ALDEA | % |
|--|---------------|-------|---------------|---------------|----------------|-------------|
| | HASIER. | LDAT. | EGUNG. | | | |
| NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA | 19.710 | - | 19.710 | 22.700 | (2.990) | 115% |
| Zerbitzu ematea..... | 19.710 | - | 19.710 | 22.700 | (2.990) | 115% |
| BESTELAKO USTIAKETA SARRERAK | 30 | - | 30 | 63 | (33) | 209% |
| Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk | - | - | - | 63 | (63) | *** |
| Ekital. emaitz. txertatutako ustiaketako diru-laguntzak | 30 | - | 30 | - | 30 | *** |
| IBILGETU EZ FINANTZ. DIRU-LAG. ETA BESTE EGOZTEA | 1.748 | - | 1.748 | 2.393 | (645) | 137% |
| BESTELAKO EMAITZA POSITIBOAK | - | - | - | 18 | (18) | *** |
| SARRERA FINANTZARIOAK | 14 | - | 14 | 34 | (20) | 239% |
| Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena..... | 14 | - | 14 | 34 | (20) | 239% |
| EKITALDIAREN GALERA | 3.731 | - | 3.731 | 1.777 | 1.954 | 48% |
| SARRERAK GUZTIRA | 25.233 | - | 25.233 | 26.985 | (1.752) | 107% |





ALEGAZIOAK, OSAKIDETZA -EUSKAL OSASUN-ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2012KO EKITALDIAREN FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN ZUZENDARIAK JARRITAKOAK.

I. SARRERA

Osakidetza -Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren 2012. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, erreferentziazko gaiaren inguruan erakunde horrek egin nahi izan dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan.

Bestalde, OSATEK sozietateak ez du alegaziorik egin.

II. IRITZIA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa (ikus A.5)

2. Osakidetzako zerbitzu-erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzte produktu edo ondasun higigarrien erosketak. Kontratu horietan, zatitu egin da kontratazioaren xedea, eta horrek publikotasun- eta lehia-printzipioa urratzea dakar berekin. Sendagaien kasuan, 72,1 milioi euroren erosketak aztertu dira, eta 53,3 milioi euroren erosketetan hauteman da gorabehera hori. Gainerako hornigaiaren kasuan, 91,6 milioi euroaren erosketak aztertu dira, eta horien %82,8an -hau da, 75,9 milioi euroren erosketetan- produktu homogeneoen erosketak zatitu egin da (Ikus A.5).

ALEGAZIOA

SENDAGAIAK

Laguntza-jardueran, sendagaiak funtsezko hornigaiak dira. Hori dela eta, dagokion kontratazio-espeditzea prestatzen eta lizitazioa egiten den bitartean, zerbitzuak ezin du etenik izan.

Adierazitakoaren arabera, 53,3 milioi euroren erosketetan hauteman da zatitzea; bada, zenbateko horren %89 -ia-ia osoa- merkaturatze eskusiboko sendagaiak erosteko erabili da. Merkaturatze eskusiboak esan nahi du sendagai jakin batek hornitzaile bakarra duela. Beraz, patologia jakin batzuk tratatzeko sendagaiak hornitzaile bakar horiei eskatu zaizkie, eta, kasu horietan, ezinezkoa da lehia-printzipioa urratzea. Nabarmendu nahi dugu hornitzaile bakarra dagoela, eta sendagaiaren prezioa Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ezartzen duela. Gainera, gogoan izan behar dugu, Espainian, sendagaien prezioak ez direla askeak, eta aipatutako Ministerioak ezartzen dituela. Hain zuzen, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (aurrerantzean, AEMPS) sendagaiei buruzko onlineko

informazio-zentroa (CIMA) du bere webgunean. Horretan, sendagai bakoitzaren titularrak nor diren zehazten da, eta, beraz, azalpen hauetarako hain funtsezkoa den datu hori egiazta daiteke (<http://www.aemps.gob.es/cima/fichasTecnicas.do?metodo=detalleForm>)

AZTERKETA

Sendagaien kodeak aztertu dira, eta, ikusi ahal izan denez, hainbat gorabeherak eragin dute argitu beharreko egora hori. Gorabehera hauek, zehatz-mehatz esanda:

1. Espedienteak ireki aurretik jarduketak egin dira, kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko egokienak finkatzeko, osasun-laguntza kalitatezkoa eta segurua izan dadin bermatze aldera (guztizko 53,348 milioi euroren %57 litzateke, gutxi gorabehera).
2. Merkatuak ez die ondo erantzun espedienteen lizitazio-baldintzei (guztizko 53,348 milioi euroren %18 litzateke, gutxi gorabehera).

Zuzeneko erosketa horiek bi arrazoi nagusirengatik egin dira: batetik, lizitazioetan eskaintzarik egin ez delako; eta, bestetik, lizitazioaren prezioa gainditzen zuten proposamen ekonomikoak eskaini direlako. Horren ondorioz, hasitako kontratazioak esleitu gabe geratu behar izan dira, eta espediente berriak abiarazi.

3. SAP sistema informatikoan egindako eskaerak, indarreko kontratuagatik babes legala izanda. Hori dela eta, ezin da esan kontratu txiki gisa izapidetu direnik (guztizko 53,348 milioi euroren %11 litzateke, gutxi gorabehera). Informatika-erroreen ondorioz, eskaera horiek ezin izan dira lotu beren indarreko kontratuarekin.

Kontratu horiek existitzen direla frogatzeko, 1etik 21era arteko zenbakidun egiaztagiriak erantsi dira.

Esan bezala, eskaerak eta haietako bakoitzari dagokion kontratua ezin izan dira informatikoki lotu -nahiz eta kontratu horiek egon badauden-, besteak beste, gorabehera hauek direla eta:

- Lagapenak, bat-egiteak, xurgatzeak edo beste zirkunstantzia batzuk. Maiz, enpresa esleipendunek aurkeztutako eskakizun legalak gertaera eragilearen ondoren iristen dira- Hori dela eta, SAP sistema ekonomiko-finantzarioan esparru-kontratu berriak hornitzaile "berriekin" kargatzea atzeratu egin da denboran (adibidez, Copaxone® sendagaia).
- Indarreko kontratuak luzatu egin dira, eta horiek SAP sistema informatikoan kargatzea atzeratu egin da denboran (adibidez, Humira® sendagaia).
- Indarreko kontratuen aurrekontuak handitu egin dira, eta zenbateko berriak SAP sistema informatikoan kargatzea atzeratu egin da denboran (adibidez, Xeloda® sendagaia).
- Kontratua indarrean duten sendagaiek aurkezpen edo forma farmazeutikoa aldatu dute, eta SAP sistema informatikoan sartzea atzeratu egin da denboran (adibidez, Tassigna® sendagaia).



Sendagai horien erosketa guzti-guztiak legez babestuta daude, Osakidetzaren eta laborategi esleipendunaren artean kontratu bat baitago indarrean; beraz, ezin dira hartu zuzeneko eskaeratzat, eta, ondorioz, ezin dira inputatu zuzeneko eskaeren zenbaketan.

4. Mediku-errezetaren bidez finantzatzeari utzi eta ospitale-esparrura igarotako sendagaiak, eta sendagai berrien merkaturatzea (guztizko 53,348 milioi euroren %5 litzateke, gutxi gorabehera).

Zuzeneko erosketa gehienak arrazoi hauek direla-eta egin dira:

1. Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Oinarrizko Zerbitzu Zorroaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpen bidez, mediku-errezetaren bidez finantzatzeari utzi eta ospitale-esparrura igaro dira inpaktu ekonomiko handiko zenbait sendagai antineoplasiko (adibidez, Iressa® eta Sprycel® sendagaiak).

2. Sendagai berriak merkaturatu dira (adibidez, Zytiga®, Gilenya®, Votrient®, Riastap® eta Jevtana® sendagaiak).

Kontuan hartu behar da, sendagai berri guztiak merkaturatu ahal izateko, Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiak aldeztu jarraitzen jarraitzen bat hartu behar duela, Farmaziako Batzorde Korporatiboak proposatuta.

5. Errekurritutako kontratazio-espeditenteak (guztizko 53,348 milioi euroren %1 litzateke, gutxi gorabehera).

Zuzeneko erosketa horiek kontratua formalizatzeko orduan gertatutako atzerapenagatik egin dira, batik bat, eta Kontratu Baliabideen Administrazio Organoak kontratua geldiaraztearen ondorio izan da atzerapen hori.

22tik 31ra arteko zenbakidun egiaztagiriak erantsi dira.

GAINERAKO PRODUKTUAK

Era berean, produktuen eta ondasun higigarrien erosketak funtsezko hornigaiak dira, eta, beraz, zerbitzuak ezin du etenik izan dagokion kontratazio-espeditentea prestatzen eta lizitazioa egiten den bitartean.

AZTERKETA

Produktuen eta ondasun higigarrien kodeak aztertu dira, eta, ikusi ahal izanenez, hainbat gorabeherak eragin dute argitu beharreko egora hori. Gorabehera hauek, zehatz-mehatz esanda:

1. Tresna informatikoak

Osakidetzak EGINBIDE izeneko tresna informatikoa erabiltzen du kontratazio-espeditenteak kudeatzeko, eta SAP sistema ekonomiko-finantzarioa, berriz, esleitutako kontratuak erregistratzeko, eskaerak eta sarrerak erregistratzeko, eta fakturak zenbatzeko. Bi tresnak ez daude kohesionatuta kontratazio-espeditenteak planifikatzeko aldera, eta horrek zaildu egiten du espeditenteen planifikazioa eta kudeaketa.



2. Erosketa integratua

Erosketa zentralizatuko espediente bat izapidetzen hastean, zerbitzu-erakundeen egoera ez da berbera, batik bat produktu horiek aurreko urtean barne hartuta ez bazeuden, eta, beraz, zentroen espediente propioetan lizitatzen baziren.

Zerbitzu-erakundeek ez dituzte tresna aproposak espedienteen izapidetzea behar adinako aurrerapenaz planifikatzeko, eta, horrela, kontrol-txostenetan deskribatutakoak bezalako gorabeherak saihesteko. Tresna aproposekin, gainera, modu ezin hobean koordinatuko lirateke zentroen espediente propioen eta erosketa integratuko espedienteen kontratuen indarraldiak.

3. Osakidetzaren antolaketa-egitura aldatzea

Orain arte, euskal osasun-laguntza bi antolaketa-esparrutan banatuta egon da: lehen mailako arreta eta arreta espezializatua. Hortaz, zerbitzu-erakundeak ere bitan banatuta egon dira: ospitaleak (arreta espezializaturako) eta osasun-eskualdeak (lehen mailako arretarako).

2010. urtean, beste antolaketa-modu bat proposatu zen, Erakunde Sanitario Integratuak deritzona, pazienteak bi laguntza-esparruetan ahalik eta gehien integratu dadin bermatzeko asmoz.

Egituraren aldaketa horrek zaildu egin zuen erakunde horretan material sanitarioko nahiz ez sanitarioko espedienteak prestatzea, Bidasoako ESIan integratuta zeuden zentroetako katalogoak, prozesu logistikoak eta halakoak bateratzeko erabili baitziren baliabideak.

4. Gorabeherak esleitutako produktuetan

Kontratuen indarraldian zehar, ohikoa izaten da esleitutako produktuekin zerikusia duten gorabeherak gertatzea. Gorabehera horiek bi motakoak izan daitezke:

- Logistikoak: hornitzaile esleipendunari stock-a hondatzea, entregak egitean atzerapenak gertatzea, garraio-grebak egotea...
- Teknikoak (produktuen kalitatearekin lotutakoak dira): pazienteen erreakzio alergikoak, erredurak, dermatitisa, erorketak...

Gorabehera horien ondorioz, gorabehera horiek gertatzen diren unetik konponbidea aurkitzen dena arte, erakundeek beste enpresa batzuetara jo behar izaten dute eskaerak egitera, zuzeneko erosketaren bidez.

5. Enpresek bat egitea, kontratuak lagatzea, etab.

Kontratuen indarraldian zehar, espedienteen esleipendun diren enpresek bat egiten dute, kontratuak lagatzen dituzte, izaera juridikoa aldatzen dute... Horrek berekin dakar SAP – EGINBIDE sistemetan aldaketak egitea, eta, horregatik, eskaera batzuk kontratutik kanpo egiten dira.

6. Esleitutako produktuak ordezkatzeta

Kontratuen indarraldia zehar, produktuak ordezkatu egiten dira. Batzuetan, ontzia edo etiketa aldatu direlako ordezkatzeta dira; kasu horietan, aldaketak erraz sartzen dira sisteman. Beste batzuetan, berriz, fabrikatzaileak esleitutako materiala ekoizteari uzten



dio, eta beste bat ekoizten du haren ordez. Logikoki, aldaketaren bat egin aurretik, ezinbestekoa da produktu hori erabiltzen duen zerbitzuak txosten bat egitea. Bien bitartean, material-premiak estaltzeko, beste hornitzaile batzuei egiten zaizkie eskaerak, eta hori guztia kontu-hartzaitzaren txostenean jasota geratzen da.

Bestalde, aurrerapen eta berrikuntza teknologikoak direla-eta, merkatuan etengabe berritzen eta aldatzen ari diren inplanteak, laborategiak edo beste edozein produktu erosteko espedienteen kasuan, oinarri teknikoaren pleguan jasota dator horniduraren helburu diren ondasunak ordezkatzeko erregimenaren klausula. Klausula horren arabera, ordezkapena egin ahal izango da, baldin eta ondasun berriaren prezioa hasieran esleitutakoaren berbera edo txikiagoa bada, eta jatorrizko ondasunaren kontratazioan ezarritako lege- eta administrazio-baldintzak betetzen badira. Egoera hori ematen denean, eta kontratazio-organoak produktua ordezkatzeko oniritzia eman eta gero, katalogoaren alta eskatzen da. Produktu berriaren kodea sortu eta gero, zentroa eskaerak egiten hasten da. Dena den, batzuetan, hainbat arrazoi direla-eta, atzerapenak gertatzen dira SAP sistemaren esparru-kontratuan kode berriak sartzeko orduan. Hori dela eta, eskaerak egiten zaizkio esleipendunari, baina ez dira SAParen kontratuari lotuta gelditzen, eta, ondorioz, gorabeheratzat hartzen dira kontu-hartzaitzaren txostenean.

Beste kasu batzuetan, merkaturatutako produktu berriek zaharkituta uzten dituzte esleitutako produktuak. Hala eta guztiz ere, ezin dira kontratuan sartu, eskaintzen duten prezioa altuagoa baita esleitutakoarena baino, eta haiek kontratuan sartzeak sektore publikoko kontratuaren legea haustea ekarriko bailuke.

LANGILERIA

3. Erakunde Zentralaren hainbat instrukziotan jasotakoa betez, hainbat produktibitate-osagarri ordaindu dira; osagarri horiek, ordea, ez daude aurreikusita Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Erabakian, abenduaren 18ko 235/2007 Dekretu bidez onetsitakoan, ez eta hori aldatzen duen ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuan ere. Honela, bada, 2012ko nominan ondoko kopuru hauek ordaindu dira: 1 milioi euro, lehen mailako arretako unitateetan lanera etorri ez diren fakultatiboak ordezkatzeagatiko produktibitate-osagarria dela eta; 1,2 milioi euro, ospitaleko fakultatiboentzat larunbat, igande eta jaiegunetako goizeko moduluan zerbitzuak emateagatiko produktibitate-osagarria dela eta; eta 223.648 euro, lehen mailako arretako unitateetan erizaintzako etxez etxeko alta ondoko zainketengatiko produktibitate-osagarri aldakorra dela eta. Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren 443/2012 Ebazpenak agintzen duenez, osagarri horiek ez dira kobratuko 2012ko maiatzetik aurrera.

ALEGAZIOA

Gai honi dagokionez, 2009., 2010. eta 2011. urteetako fiskalizazio-txostenetan adierazitako alegazioak errepikatu nahi ditugu.



Osakidetzak behin eta berriz adierazi duenez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak berak aitortzen du aipatutako osagarriak ez direla kobratu 2012ko maiatzetik aurrera, Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren 443/2012 Ebazpenean ezarritakoa betez.

Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako 2009. eta 2010. urteetako Osakidetzaren fiskalizazio-txostenei dagokienez, zera adierazi beharra dago: gai honengatik beragatik, Herri Kontuen Epaitegiaren Epaitze Atalak eginbideak ireki zituen (230/12 aurretiazko eginbideak eta B-10/14 atariko eginbideak), eta 2013ko urriaren 22ko eta 2014ko martxoaren 24ko autoetan, hurrenez hurren, jarduketekin jarraitzea bidezkoa ez zela adostu zuen eta jarduketak artxibatzea dekretatu zuen, Herri Kontuen Epaitegiaren funtzionamenduari buruzko apirilaren 5eko 7/88 Legearen 46.2 artikuluan ezarritakoa betez, ez baitzuen hauteman diru publikoei kalterik egin zitzaienik.

4. Osatek SA n zerbitzu ematen duen Osakidetzako langileek zerbitzu horrengatik ordainsaria jasotzen dute, nominaren autokontzertazio kontzeptuaren bitartez. 2012. urtean, 322.147 euro ordaindu dira, guztira. Jarduera horrek ez du inola ere autokontzertazio izaerarik.

ALEGAZIOA

Gai hau 2010eko fiskalizazio-txostenean ere jaso zen, eta horretan adierazi zenez, zerbitzuak egiazki Osateken ematen dira (Osatek Osakidetzako zerbitzu-erakundea da, Osakidetzak - Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen 1998ko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren Eranskinean ageri denez).

Osateken aritzen diren fakultatiboak zerbitzu-erakundeen menpe daude, eta Osatekek zerbitzu-erakunde horiei fakturatzen die, langileei nominan ordain diezaieten; izan ere, ulertzen da emandako prestazio zehatzari -azken finean, eskaera asistentziala xurgatzea helburu dueña- ondoen egokitzen zaion kontzeptua produktibitatea -itxarote-zerrenda dela.

Horrela jarduteko, Osateken eta Osakidetzaren mendeko gainerako osasuneko zerbitzu-erakundeen arteko Hitzarmen erregulatzailerak -Euskadiko Osasun Antolamenduaren Legearen 19. artikuluan ezarritako Kontratu-Programaren ondorioz sortua- hartu da oinarritzat.

Aurreko puntuan bezalaxe, gorabehera hau jasota zegoen arestian aipatu ditugun Herri Kontuen Epaitegiaren Epaitze Atalak irekitako eginbideetan, eta, lehen adierazi dugunez, jarduketekin jarraitzea bidezkoa ez zela adostu zuen.

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.2 KONTRATAZIOA

Aurreko ekitaldietan 128,4 milioi euroan esleitutako eta 2012an aldatu, luzatu edo egikaritutako 16 espedienteren lagina aztertu dugu, bai eta ekitaldi horretan 316,1 milioi euroan esleitutako 50 kontratazio-espeditente ere. Aztertutako espedienteen zerrenda A.5. atalean dago xehatuta.

III.2.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

40,8 milioi euroan esleitutako bi obra-espeditentetan eta zerbitzu-espeditente batean, hasierako egikaritzea-epea 24 hilabetetik 55 hilabetera luzatu da: 29 hilabetetik 36 hilabetera eta 11 hilabetetik 20 hilabetera, hurrenez hurren. Hori dela eta, ez da bermatu funtsen erabilera eraginkorra, eta hori sektore publikoko kontratazioaren oinarrietako bat da (2., 4. eta 16. esp.).

2. esp.: Debagoieneko Ospitalea handitzeko eta berritzeko lanak

ALEGAZIOA

Espeditente honek epea luzatzeko hainbat izapide izan ditu, espeditente horretan eragina izan duten hainbat gorabehera direla eta.

Lehenbiziko luzapena, 2008ko irailaren 22koa, arrazoi hauengatik izan zen:

- 1- Udal-azpiegitura zaharrak kaltetuta zeuden.
 - 2- Azpiegituren kalteek alboko eraikinei ere eragiten zieten.
 - 3- Debagoieneko eremuko Telefónicaren sarea zuzen-zuzenean eta oso kaltetuta zegoen.
- 7 hilabeteko luzapena eskatu zen.

Bigarren luzapena ere, 2009ko abuztuaren 3koa, udal-azpiegiturak eta harguneak kaltetuta zeudelako egin zen, horrek ospitale berriari eragiten baitzion. Udala egiten ari zen urbanizazio-lanen ondorio izan zen hori, eta lan horiek ez zetozen bat gai horri lotuta emandako lehen datuekin. Beste ondorio bat Sailak egindako aldaketa izan zen, erditze-gunearen eta ama-haurrentzako ospitalizazioen ebazpenaren irizpideei dagokienez.

Luzapena 7 hilabetekoa izan zen.

Hirugarren luzapena, 2011ko apirilaren 14koa, 9 hilabetekoa izan zen. Besteak beste, arrazoi hauengatik izan zen:

- 1- Oraingo eraikinen eta ospitale berriaren arteko konexioak.
- 2- Gas-, telefono- eta elektrizitate-sareen harguneen ibilbideak aldatzea, eta horiek kudeatzea erakunde eskudunekin.
- 3- Anatomia Patologikoaren kokapena aldatzea.
- 4- Zitostatikoen gune osoaren ebazpen berria.



Epearen laugarren luzapena 2011ko ekainaren 13koa izan zen. Izan ere, fase horretan, ospitaleak aldagela berriak, historia klinikoen artxiboak eta horientzako biltegi bat behar zituela justifikatu zen. Gainera, mikropilote-hesi bat eraiki behar izan zen anbulatorioaren zimenduak ez kaltetzeko, eta egitura sendotu behar izan zen zenbait oinarritzko ekipo birkokatzeke.

Luzapena lau hilabetekoa izan zen.

Epearen bosgarren luzapena 2012ko maiatzaren 3koa izan zen. B eta C guneak egikaritu ez zirenez, aldatu egin behar izan ziren ospitaleko sukaldearen eta sarrera nagusiaren kokapena. Horrek endoskopien guneari eragin zion, eta berriz definitu behar izan zen. Gainera, esterilizazio-zerbitzua bertan behera utzi zen, eta haren ordeaz arropa zuriak gordetzeko eta seruma biltzeko espazio bat diseinatu zen. Bestalde, udalak eremu bat urbanizatu behar izan zuen, egikaritu ez zen B eremuko sotoan aurreikusita zeuden aparkalekuak jartzeko.

Bi hilabeteko epea eskatu zen.

Bost luzapenak gehituta, 29 hilabete dira guztira; eta horiek, esleipenari gehituta, 53 hilabete guztira. Epe horri lanetan gertatutako geldialdi bat gehitu behar zaio: 2011ko lehen hiruhilekoan izan zen, urtarrilaren 11tik apirilaren 4ra, hain zuzen. Beraz, emaitza III.2.1 puntuan adierazitakoa da (55 hilabete, alegia), eta arestian emandako azalpetan dago justifikatuta.

Bestalde, aurrekontuaren ikuspuntutik, zera esan behar da: aurrekontuetan barne hartuta dago ekitaldiko inbertsioen hornidura, bai eta gerorako konpromisoen egoera ere, eta aurrekontuen indarraldia onartzen direneko urte naturalekoa izaten da.

Aurrekontu-hornidurak gutxi gorabeherakoak izaten dira, eta, beraz, erakundeak bere jardueraren garapenaren inguruan egiten dituen aurreikuspenak aurrekontu-ekitaldian zehar jasotzen dira. Hala, berritu egiten dira ekitaldi bakoitzean likidatzea aurreikusitako eta aintzat hartu beharreko premia guztiak.

Urteko aurrekontuen legeak aurreikusitako eragiketa ekonomiko guztiak jasotzen ditu, eta aurrekontuaren egikaritze-prozesuaren barruan jasotzen dira aurreikusi gabekoak.

4. esp.: Basurtuko Ospitaleko bloke kirurgikoa handitzea (II. fasea)

ALEGAZIOA

Epea luzatzeko bi eskaerek zenbait ezaugarri berdinekin dituzte:

A. Ospitaleko jarduera kirurgikoaren eraginez lanak gelditzea.

I. fasean egindako bloke kirurgikoaren alboan egin ziren lanak, eta sei ebakuntza-gela horietan ez zen jarduera eten. Lanek arazorik gabe egin zuten aurrera. Dena den, ebakuntzak egiten ari ziren unean bertan; lanek arazoak eragiten zituzten; izan ere, zarata eta bibrazioak sortzen zituzten, batik bat. Hori dela eta, etengabeko etenaldiak egin behar izan zituzten lanetan, ebakuntzek lehentasuna baitzuten. Etenaldi horiek goiz osoa irauten zuten askotan. Batzuetan, arratsalde erdira arte ere bai; hau da, ebakuntzak amaitu arte. Noski, horrek atzerapen handiak ekarri zituen.



B. Ospitaleak eskatutako aldaketak

Osasun-langileek 1:1 eskalan daudenean ulertzen dituzte planoak; hau da, eskala errealean.

Horrek zenbait aldaketa ekarri ditu. Aldaketa horiek ez zioten proiektuaren kontzeptu orokorrari gehiegi eragiten, baina bai ordea proiektuaren exekuzioari; izan ere, aldaketa horiek berekin zekarten, besteak beste, sarbideak aldatzea, zirkulazioak aldatzea, erizaintzako kontrolak berriz definitzea, boxak birkokatzea, eta oftalmologiako eremua eta zeladoreena ere berraztertzea. Maila kontzeptuarean aldaketa txikiak badira ere, eragina izan dute benetako lanegunetan.

C. Goiko terrazatik (plazatik) ura sartzea.

Eguraldi txarraren eta mantentze-lan eskasen ondorioz, ura sartu zen lugorrian utzitako eremuko zenbait tokitatik. Gorabehera horiek guztiek lanak atzeratzea ekarri zuten; izan ere, lanak gelditu egin behar izan ziren, ura nondik sartzen zen ikusi eta konponketak egin bitartean.

D. Lanen amaiera aldera geldialdiak egin ziren, instalakuntzekin lotutako hainbat konturengatik. Ospitaleko mantentze-lanetako zerbitzuak eskatu zituen; zerbitzuaren arduradun den Pedro Bilbao jaunak, zehatz-mehatz esanda.

16. esp.: Ingurune kliniko-medikoari euskarri emateko informazio-sistema ezartzea (Osabide Globala).

ALEGAZIOA

Goian aipatutako espedientearen (Ingurune kliniko-medikoari euskarri emateko informazio-sistema -Osabide Globala- Osakidetzan ezartzeari dagokiona) epearen aldaketaren inguruko azalpen-memoriari dagokionez, hauek dira proiektu hori egiteko epea eta hasierako aurrekontua:

Proiektuaren epea 2012ko ekainaren 30ean amaitu zen.

Kontratututako aurrekontua 1.104.730,00 eurokoa izan zen (BEZik gabe).

Ondoko aldaketa eskatu zen:

Proiektuaren epea 9 hilabete luzatzea (2013/03/31 arte).

2012ko maiatzean, kontratuaren aldaketa egin zen, ezinezkoa baitzen informazio-sistema hori uda-garaian larrialdi-zerbitzuetan ezartzea; izan ere, zerbitzu horren kritikotasuna dela eta, ez da egokia horrelako ezarpen bat egitea langileak etengabe txandakatzen edo ordezkapenak egiten ari diren bitartean (eta udan oso maiz gertatzen da hori). Beraz, proiektuaren abiaraztea aurreragorako utzi behar izan zen, eta, ondorioz, espedientearen epea luzatu.

Larrialdien moduluan ezarpena atzeratzearen ondorioz, 2012ko maiatzean Txagorritxuko Ospitalearen pilotatzea eta abiaraztea bakarrik zegoen eginda, eta horrek arestian aipatutako egoerara garamatza. Arrazoi hauek ekarri dute ezarpenaren atzerapena, eta ezin zaizkio egotzi enpresa esleipendunari:



Sistema horren euskarri-azpiegitura sendotzeko premia, batik at APPFabric zerbitzariari dagokienez, sistema zerbitzari erredundantez hornituz, kontingentzien aurrean zerbitzua bermatze aldera.

Beharrezko hardwarea eta diseinua hornitzea, eta zerbitzarien arteko erredundantzien eta jauzien mapa martxan jartzea, ez dago eskuragarri apirilera arte.

E-osabide sisteman web-zerbitzuak optimizatzeko eta garatzeko premia, datu-baseen irakurketa fisiko/logiko asko egiten baitira, larrialdietako erroldetako eskaera funtzional estua dela eta.

E-osabide, Osakidetza ospitalerako HISa (haren mantentze-lanak eta bilakaera espediente honen helmenetik at daude), helburu orokorreko web-zerbitzuen frontal garrantzitsua da, eta beste sistema batzuen artean, OsabideGlobal delakoak kontsumitzen ditu zerbitzu horiek.

OsabideGlobalak, larrialdien gunean, zerbitzuen kontsumo intentsiboa egiten du, etengabe galdetzen dio e-osabideri gaixoen egoeraren inguruan, proba osagarrien inguruan eta abar. Horrek e-osabiden beste edozein sistemari eskaera handiagoa egitea dakar.

Eskaera intentsibo horrek berekin ekarri du e-osabideren mantentze-lanen espedientearen esparruan web-zerbitzu espezifikoak optimizatzea eta garatzea, datu-baseen irakurketen bolumena arintzeko, eta, hala, sistema horren karga murrizteko.

OsabideGlobalaren larrialdietako abiarazte-estrategia, hasieran Osakidetzak planteatutakoa, Big Bang moduan egitea (egun jakin batean zerbitzu osoan abiarazten da, sistema berriarekin) ez da aproposa eremu asistentzial honetan, haren kritikotasuna dela eta. Hortaz, berriz bideratu behar da estrategia hori, abiaraztea mailakatuagoa eta larrialdimotaren arabera izan dadin (orokorra, amena eta pediatria), eta horrek berekin dakar zentro bakoitzean ezarpena 2 astera arte luzatzea.

III.2.2 2012AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Lizitazio-iragarkiak dio administrazio-klausula partikularren plegura jotzeko hautatutako irizpideen eta haien haztapenaren berri jakiteko. Horrek berekin dakar datu horiek lizitazio-iragarkian bertan adierazteko berariazko betebeharra ez betetzea 10,2 milioi euroan esleitutako 5 hornidura-espeditetan eta zerbitzu-espeditetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150.5 artikulua): 49., 50., 61., 63., 64. eta 65. esp.

49. esp.: Servicio de proveedor único de alimentos, materias primas y fungibles
G/208/20/1/0545/O101/0000/022012

50. esp.: A.M. productos y equipamiento necesarios para la hemodiálisis
G/114/80/1/0950/O101/0000/072012

61. esp.: Prótesis de cadera G/111/20/1/0977/O301/0000/072012



63. esp.: Equipos cobertura quirúrgica para el H. Donostia

G/130/20/1/1514/O301/0000/102011

64. esp.: Campos, fundas y varios desechables G/110/20/1/0016/O301/0000/012012

65. esp.: Implantes para unidad del dolor y desechables para radiofrecuencia

G/111/20/1/1781/O301/0000/122011

ALEGAZIOA

BOEko iragarkian nahiz EBAOkoan adierazita dago zein diren esleipen-irizpideak eta haietako bakoitzaren haztapena. Administrazio-klausula partikularren plegura jotzeko adierazten denean, balorazioa plegu horren karatulako 30. atalean ezarritakoaren arabera egingo dela esan nahi da. Balorazio-taulak ez dira iragarkietan jasotzen; izan ere, espazio-kontuak direla eta, ez dira sartzen. Baina, egia esan, irizpideak eta haien haztapenak BAI daude jasota iragarkietan, eta, beraz, betetzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150.5 artikuluan eskatutakoa.

32tik 81era arteko zenbakidun dokumentuak erantsi dira.

Halaber, 68,5 milioi euroan esleitutako 11 hornidura-espeditetan eta 2 zerbitzu-espeditetan, lizitazio-iragarkiak adierazten du aldaerak edo hobekuntzak aurkezteko aukera dagoela, baina ez du zehazten zer elementutan edo baldintzatan aurkez daitezkeen (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 147.2 artikulua): 17., 18., 19., 26., 30., 42., 50., 52., 53., 61., 64. eta 65. esp.

17. esp.: Medicamentos biológicos para el tratamiento de procesos inflamatorios crónicos

G/100/20/1/1310/OSC 1/0000/072011

18. esp.: Oxígeno y gases medicinales en diversos hospitales

19. esp.: Gestión externa de los residuos sanitarios en los centros asistenciales

26. esp.: AM medicamentos trastuzumab, valganciclovir, erlotinib, dornasa

30. esp.: Prodto y equip para realizar técnicas de análisis clínicos de rutina y urgencia

G/112/20/1/0474/OSC 1/0000/022012

42. esp.: Limpieza de la sede central y escuela universitaria enfermería de Alava G

50. esp.: productos y equipamiento necesarios para la hemodiálisis

G/114/80/1/0950/O101/0000/072012

52. esp.: Suturas absorbibles G/113/20/1/0799/O101/0000/052012

53. esp.: Material fungible para angioplastia coronaria G/110/20/1/0717/O101/0000/042012

57. esp.: Prdts y equipos necesarios para realizar técnicas de microbiología

G/112/20/1/0995/O661/0000/082012

61. esp.: Prótesis de cadera G/111/20/1/0977/O301/0000/072012

64. esp.: Campos, fundas y varios desechables G/110/20/1/0016/O301/0000/012012



65. esp.: Implantes para unidad del dolor y desechables para radiofrecuencia

G/111/20/1/1781/O301/0000/122011

ALEGAZIOA

"Variantes_doue.pdf" dokumentu erantsian ikus daitekeenez, EBAOko iragarkiei dagokienez, web-aplikazioan ezin da jaso zer elementutan eta baldintzatan aurkez daitezkeen aldaerak; zehatz-mehatz esanda, aldaerei dagokienez, bai edo ez bakarrik adierazteko aukera ematen da (*ikus II.1.9 puntua*). BOEk, ordea, ematen du aukera hori, eta egia da orain arte ez dela jaso. Dena den, orokorrean esaten zen pleguetara jotzeko, eta haietan bai daude ezarrita baldintza horiek; administrazio-klausula partikularren pleguko karatularen 28.7 puntuan, hain zuzen ere. Gorabehera hori zentroko kontu-hartzaitzak nabarmendu zuen, eta egun jada zuzenduta dago.

Uste dugu kontratatzailearen profiler a bideratuz emandako informazioak betetzen duela lizitatzailleekiko gardentasunaren eta informazioaren agindu legala.

82tik 89ra arteko zenbakidun dokumentuak erantsi dira.

Pleguek hutsuneak dituzte esleipen-irizpideen balorazio- eta haztapen-metodoak zehazteko orduan, 69,8 milioi euroan esleitutako 4 obra-espeditetan, espediente misto batean eta 4 zerbitzu-espeditetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150. artikulua): 24., 32., 36., 39., 42., 49., 59., 60., 62., 63., 65. eta 66. esp.

24. esp.: Construcción de un Hospital Subagudos en Eibar

G/000/20/0/0992/O001/0000/082012

32. esp.: Construcción centro salud Munguia G/000/20/0/1376/O441/0000/082011

36. esp.: Obra de reforma del bloque quirúrgico Dr. Areilza en el HU Basurto

G/010/20/0/0882/O621/0000/062012

39. esp.: Construcción hospital Uribe kosta fase II G/000/20/0/1160/O001/0000/062011

42. esp.: Limpieza de la sede central y escuela universitaria enfermería Alava

G/207/20/1/0206/O001/0000/012012

49. esp.: Servicio de proveedor único de alimentos, materias primas y fungibles

G/208/20/1/0545/O101/0000/022012

59. esp.: Vigilancia y seguridad del HU Cruces G/209/20/1/0764/O661/0000/042012

60. esp.: Lavado, planchado, alquiler y costura de ropa G/206/20/1/1155/O661/0000/092012

62. esp.: Implantes cocleares G/111/20/1/0854/O301/0000/062012

63. esp.: Equipos cobertura quirúrgica para hospital Donostia

G/130/20/1/1514/O301/0000/102011

65. esp.: Implantes para unidad del dolor y desechables para radiofrecuencia

G/111/20/1/1781/O301/0000/122011



66. esp.: Mantenimiento de equipos electromedicos Olympus
G/201/11/1/0871/O301/0000/062012

ALEGAZIOA

Hautatutako irizpideetan objektiboki eta uniformeki daude zehaztuta balorazioan kontuan hartuko diren alderdi guztiak, modu predeterminatuan eta haztatuan; beraz, lizitatzailerik izango direnek badakite zer elementu hartuko diren aintzat ekonomikoki onuragarriena den eskaintza identifikatzeko.

90etik 144ra arteko zenbakidun dokumentuak erantsi dira.

Pleguek bermea eratzeko betebeharretik salbuesten dute esleipenduna, justifikaziorik jaso gabe, 1,9 milioi euroan esleitutako 3 hornidura-espeditetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 95.1. artikulua): 63., 64. eta 65. esp.

63. esp.: Equipos cobertura quirúrgica para hospital Donostia
G/130/20/1/1514/O301/0000/102011

64. esp.: Campos, fundas y varios desechables G/110/20/1/0016/O301/0000/012012

65. esp.: Implantes para unidad del dolor y desechables para radiofrecuencia
G/111/20/1/1781/O301/0000/122011

ALEGAZIOA

Honatx salbuetsita egotearen arrazoia: segidako hornidura da, eta faktura ordaindu aurretik egiten da entrega.

Kontrol ekonomikoko bulegoaren 2012. urteko kontratazio publikorako behin-behineko txostenean (2013ko abenduan igorri zen) agerian jartzen da gorabehera hori, eta karatulan adierazita dago bermea eratzeko salbuespena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 95.1. artikuluan ezarritakoak justifikatzen duela.

Proposamen-irekiera epez kanpo egin da 67,7 milioi euroan esleitutako 3 obra-espeditetan, 2 hornidura-espeditetan eta 4 zerbitzu-espeditetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 160.1 artikulua): 20., 21., 23., 25., 31., 32., 36., 39. eta 42. esp.

20. esp.: Prestación de servicio para el centro integrador de servicio al usuario corporativo
G/205/20/1/1394/OSC 1/0000/082011

21. esp.: A.M. marcapasos, desfibrilares y holters G/111/20/1/0408/OSC 1/0000/022012

23. esp.: A.M. para catéteres de balón para angioplastia coronaria transluminal
G/110/20/1/0677/OSC 1/0000/032012

25. esp.: Mantenimiento de equipamiento de electromedicina de área se salud de Gupuzkoa
G/201/20/1/1751/OSC 1/0000/122011



31. esp.: Redacción de proyecto básico para la construcción H. Subagudos en Eibar G/300/20/0/1545/O001/0000/102011
32. esp.: Construcción centro salud Munguia G/000/20/0/1376/O441/0000/082011
36. esp.: Obra de reforma del bloque quirúrgico Dr. Areilza en el HU Basurto G/010/20/0/0882/O621/0000/062012
39. esp.: Construcción hospital Uribe kosta fase II G/000/20/0/1160/O001/0000/062011
42. esp.: Limpieza de la sede central y escuela universitaria enfermería Alava G/207/20/1/0206/O001/0000/012012

ALEGAZIOA

Kontratazio-prozedura horietan, hainbat esleipen-irizpide baloratu behar dira ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zein den erabakitzeko. Hori dela eta, proposamenak irekitzeko, ezinezkoa izan daiteke Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 160.1 artikuluan ezarritako gehieneko epea betetzea, hala nola faktore hauek direla eta: eskaintzen konplexutasuna, aditu-batzorde bati nahitaez txostenak eskatu beharra, lotetan zatitzea, proposamen-kopuru handia aztertu behar izatea eta abar. Horrek zaildu egiten du balio-judizioen txosten teknikoak eskura izatea ezarritako epearen barruan. Gainera, aparteko ebaluazio bat izateko, behar-beharrezkoa da prozedura matematikoen bidez zenbatzekoak ez beste teknikak dagoeneko eginda izatea, bai eta kontratazio-mahaiaren esku egotea ere proposamen ekonomikoak ireki aurretik; izan ere, horixe da aginduaren helburua bermatzeko eta bi ebaluazioak bereizteko modurik fidagarriena.

BOEn egindako lizitazioaren iragarkiak ez du errespetatzen proposamenak aurkezteko epea 28,7 milioi euroan esleitutako obra-espeditante batean, hornidura-espeditante batean eta 2 zerbitzu-espeditantetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 159. artikulua): 23., 24., 31. eta 33. esp.

23. esp.: A.M. para catéteres de balón para angioplastia coronaria transluminal G/110/20/1/0677/OSC 1/0000/032012
24. esp.: Construcción de un Hospital Subagudos en Eibar G/000/20/0/0992/O001/0000/082012
31. esp.: Redacción de proyecto básico para la construcción H. Subagudos en Eibar G/300/20/0/1545/O001/0000/102011
33. esp.: Mantenimiento telefonía fija G/203/20/1/1550/OSC 1/0000/102011

ALEGAZIOA

Halaxe da: Legeak ezartzen du lizitazioa Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela, proposamenak aurkezteko ezarritako epearekiko hamabost eguneko aurretiaz, gutxienez.

Dena den, esan beharra dago lizitazioaren publizitatea behar bezala bermatuta dagoela; izan ere, iragarkia EBAOn eta kontratatzailearen profilean argitaratu zen, eta bitarteko horiek ere ahalik eta publizitate handiena bermatzen dute.



Prezioak berrikusi dira, pleguan horretarako formula edo indize ofizial bat zehaztuta egon gabe, 71 milioi euroan esleitutako 3 zerbitzu-espeditetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 90. artikulua): 42., 54. eta 55. esp.

42. esp.: Limpieza de la sede central y Escuela de Universitaria enfermería de Alava
G/207/20/1/0206/O001/0000/012012

54. esp.: Limpieza del HU Araba G/207/20/1/0005/O101/0000/012012

55. esp.: Limpieza y desinfección del HU Cruces G/207/20/1/1047/O661/0000/082012

ALEGAZIOA

Osakidetzak eta sareko hainbat zentrotan zerbitzua ematen duten sektoreko enpresek izenpetutako hitzarmenaren ondorioz egin zen ezarritako berrikuspena. Hitzarmen horretan jasota dagoenez, Osakidetzako langileentzat onartzen diren soldata-igoerek eta -jaitsierek eragina izango dute Osakidetzan lanean aritzen diren garbiketa-enpresa horietako langileen soldata-masan. Beraz, hitzarmenean adostutakoa betetze aldera, aurreikusi beharra dago, alde horretatik, prezioak aldatu egingo direla garbiketa-kontratuetan. Dena den, aldaketa hori ezin da zenbatetsi, kasuan kasuko hitzarmenak sinatzen diren arte ez baita zifra jakiten.

Esleipen-ebazpena epez kanpo egin da 61,5 milioi euroan esleitutako obra-espeditante batean, 7 hornidura-espeditetan eta 4 zerbitzu-espeditetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 161 artikulua): 18., 21., 22., 23., 27., 38., 39., 41., 43., 45., 47. eta 52. esp.

18. esp.: Oxigeno y gases medicinales en diversos hospitales
G/119/20/1/1276/OSC 1/0000/072011

21. esp.: AM marcapasos, desfibrilares y holters G/111/20/1/0408/OSC 1/0000/022012

22. esp.: A.M. para stens coronarios recubiertos con farmacoactivos
G/110/20/1/0678/OSC 1/0000/032012

23. esp.: A.M. para catéteres de balón para angioplastia coronaria transluminal
G/110/20/1/0677/OSC 1/0000/032012

27. esp.: Servicios de soporte tecnologías Microsoft G/205/11/1/0546/OSC 1/0000/022011

38. esp.: Mantenimiento de los sistemas Omega para la gestión de los laboratorios
G/204/11/1/0766/OSC 1/0000/042012

39. esp.: Construcción hospital Uribe Kosta G/000/20/0/1160/O001/0000/062011

41. esp.: Licencias de uso revistas electrónica Ovid G/160/11/1/0208/OSC 1/0000/012012

43. esp.: Test de determinaciones genética de muestra biológica validado en parafina
G/211/11/1/0874/OSC 1/0000/062012

45. esp.: Licencias de uso de revistas electrónicas sciencie direct
G/160/11/1/0257/OSC 1/0000/012012



47. esp.: Mantenimiento SAP enterprice Support G/204/11/1/0586/OSC1/0000/032012

52. esp.: A.M. suturas absorbibles G/113/20/1/0799/O101/0000/052012

ALEGAZIOA

Halaxe da: proposamenak ireki eta bi hilabete baino gehiago igaro ostean esleitu dira zenbait espediente. Dena den, zera zehaztu behar da: bi hilabeteko epe arrunta gainditu bada ere (ez iraukitze- edo preskripzio-epea), eta prozeduraren luzapenaren ohiz kanpoko izaera azpimarratuz, arrazoi nagusia izan da txosten teknikoak emateko garaian izandako zailtasunek (probak egin beharra, teknikarien agenda-arazoak, beren jarduera asistentzialaz gain txostenak egin behar izatea, teknikari informatzaileen kopuru handia...) atzerapenak eragin dituztela irekieratik esleipenera arte.

Doktrinak berak zehazten duenez, bi hilabeteko epea ez da erabakigarria ezeztagarritasunari dagokionez (Administrazio publikoen erregimen publikoa eta administrazio-prozedura erkidea arautzen dituen legearen 63.3 artikulua), lizitatzailleek haien eskaintzarekiko duten loturak izango duen gehienezko denbora baino ez duelako arautzen.

145etik 145era arteko zenbakidun dokumentuak erantsi dira.

Esleipen-akordioaren aurka errekurtsioak jartzeko legeak aurreikusitako epea amaitu baino lehen formalizatu da kontratua 70,6 milioi euroan esleitutako 2 zerbitzu-espedientetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 156. artikulua): 55. eta 56. esp.

55. esp.: Limpieza y desinfección HU Cruces G/207/20/1/1047/O661/0000/082012

56. esp.: Distribución de comida y limpieza de vajilla en el servicio de comida G/207/20/1/0975/O661/0000/072012

ALEGAZIOA

55. espedienteari dagokionez, kontratuan bertan dago adierazita 12/12/10ean jarriko dela indarrean, errekurtsio berezi bat jartzearen ondorioz eteten bada izan ezik. Beraz, kontratua ez da aldeztu aurretik formalizatu, baldintza etengarriaren menpeko exekuzioaren hasiera-data kontuan hartuz gero.

56. espedienteari dagokionez, esleipen-ebazpenaren jakinarazpena 2012/10/5ean igorri zen, eta kontratuaren formalizazioaren eta exekuzioaren hasieraren data 2012/11/01a da; beraz, errespetatu egin da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 156.3 artikuluan ezarritako 15 egun baliouduneko epea.

165etik 200era arteko zenbakidun egiaztagiria erantsi dira.

Kontratuaren formalizazioaren iragarpena epez kanpo egin da BOEn eta ez da egin EBAOn, 154,5 milioi euroan esleitutako 2 obra-espedientetan, 10 hornidura-espedientetan eta 10 zerbitzu-espedientetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen

Testu Bateginaren 154. artikulua): 22., 23., 24., 25., 26., 31., 32., 33., 34., 38., 40., 41., 43., 44., 45., 47., 48., 55., 56., 57., 59. eta 60. esp.

22. esp.: A.M. para stens coronarios recubiertos con farmacoactivos
G/110/20/1/0678/OSC1/0000/032012
23. esp.: A.M. para catéteres de balón para angioplastia coronaria transluminal
G/110/20/1/0677/OSC1/0000/032012
24. esp.: Construcción de un Hospital Subagudos en Eibar
G/000/20/0/0992/O001/0000/082012
25. esp.: Mantenimiento de equip. De electromedicina de área se salud de Gupuzkoa
G/201/20/1/1751/OSC1/0000/122011
26. esp.: A.M. medicamentos transtuzumab, valganciclovir, erlotinib, dornasa
G/100/20/1/1568/OSC1/0000/112011
31. esp.: Redacción de proyecto básico para la construcción H. Subagudos en Eibar
G/300/20/0/1545/O001/0000/102011
32. esp.: Construcción centro salud Munguia G/000/20/0/1376/O441/0000/082011
33. esp.: Mantenimiento telefonía fija G/203/20/1/1550/OSC1/0000/102011
34. esp.: A.M medicamentos linezolid, voriconazol, sildenafil, idarubicia
G/100/20/1/0207/OSC1/0000/012012
38. esp.: Mantenimiento de los sistemas Omega para la gestión de los laboratorios
G/204/11/1/0766/OSC1/0000/042012
40. esp.: Equipos de resonancia magnética nuclear HU Araba
G/130/20/0/0919/O0001/0000/072012
41. esp.: Licencias de uso revistas electrónica Ovid G/160/11/1/0208/OSC1/0000/012012
43. esp.: Test de determinaciones genética de muestra biológica validado en parafina
G/211/11/1/0874/OSC1/0000/062012
44. esp.: Publicaciones periódicas para la organización central y organizaciones periféricas
G/127/20/1/0647/OSC1/0000/032012
45. esp.: Licencias de uso de revistas electrónicas sciencie direct
G/160/11/1/0257/OSC1/0000/012012
47. esp.: Mantenimiento SAP enterprice Support G/204/11/1/0586/OSC1/0000/032012
48. esp.: Ecógrafo para atención primaria G/130/20/0/1026/OSC1/0000/082012
55. esp.: Limpieza y desinfección HU Cruces G/207/20/1/1047/O661/0000/082012
56. esp.: Distribución de comida y limpieza de vajilla en el servicio de comida
G/207/20/1/0975/O661/0000/072012
57. esp.: Prodto y equipos necesarios para realizar técnicas de microbiología
G/112/20/1/0995/O661/0000/082012



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

59. esp.: Vigilancia y seguridad del HU Cruces G/209/20/1/0764/O661/0000/042012

60. esp.: Lavado, planchado, alquiler y costura de ropa G/206/20/1/1155/O661/0000/092012

ALEGAZIOA

Halaxe da: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 154. artikuluan ezarritako 48 eguneko epea igaro ostean argitaratu da kontratuaren formalizazioa BOEn. Dena den, formalizazioaren egunean bertan egin da haren iragarkia kontratatzailearen profileen. Hala eta guztiz ere, neurri zuzentzaileak hartu dira, kontratuaren formalizazioaren argitalpenean ez daitezzen gertatu horrelako atzerapenak.

Gainera, 14 zerbitzu-erakundetan 2,4 milioi euroan kontratu txiki gisa izapidetutako inbertsioen erosketan, Osakidetzak zatitu egin du 7 zentrok 412.660 euroan egindako erosketetan kontratazioaren xedea, eta, beraz, ez ditu bete legeak ezarritako kontratazio-prozedurak. "Erabilera klinikoko makineria" (ikus A.5) kontuan gertatu da kasu horien %73.

ALEGAZIOA

Kontratuaren xedea zatitu den ala ez erabakitzeko, kasu jakin bakoitzean "unitate operatibo edo funtzional" delakoaren kontzeptua aplika ote daitekeen ikusi behar da.

UNITATE OPERATIBO EDO FUNTZIONAL bat dagoela esaten da, baldin eta elementuak ezin badira bereizi xede jakin bat lortzeko, edo elementu horiek guztiak ezinbestekoak badira kontratuaren bidez lortu nahi den horrek behar bezala funtziona dezan.

Kontratua ez da bidegabeki zatituta egongo, baldin eta xedeak bat baino gehiago badira eta ez baldin badaude elkarri lotuta aipatutako unitate operatiboaren edo funtzionalaren bidez, eta, beraz, haietako bat edo batzuk exekutatzeko eta ustiatzeko ez bada beharrezkoa gainerakoetako beste edozein exekutatzeko eta ustiatzeko (Estatuko Administrazio Kontrataziorako Kontsulta Batzordearen 57/09 txostena), edota bi kontratatutako edo gehiagotako xedeak antzekoak badira baina elkarren artean independenteak.

Legearen helburua, zatitzea arautzen duenean, ez da izaera desberdineko edo berbereko zenbait prestazio kontratu bakar batean artifizialki biltzea, baizik eta prozedura irekia edo negoziatua arautzen dituzten aginduak publizitate-eskakizunetan aplikatzea saihestera daraman lege-iruzurrik ez gertatzea. Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 86. artikulua aginduak ez du behartzen kontratu berean bi prestazio edo gehiago sartzera, antzekoak izan arren eta batera egin badaitezke ere, baldin eta haien artean ez badago lotura operatiborik. Beraz, prestazio horiek bakoitza bere aldetik kontrata daitezke, eta gainera, bakoitza bere aldetik ustia daitezke.

Dena den, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 25.2 artikulua ("kasu bakar batean bateratu ahal izango dira kontratu ezberdinetako prestazioak kontratu misto batean: alegia, baldin eta prestazio horiek elkarrekin zuzenean lotuta badaude eta, elkarren artean osagarri izanik, unitate funtzional gisa tratatu behar badira, premia jakin bat ase ahal izateko edo ente, organismo edo erakunde kontratatzailearen berezko erakunde-



